

# **Eusko Jaurlaritza** **Euskararen Erabilera** **Normalizatzeko** **V. Plangintzaldiko** **2016. urterako** **kudeaketa-plana**

## **Ingurumen eta Lurralde** **Politika Saila**

2015eko azaroa





# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

## Aurkibidea

|                                                               |    |
|---------------------------------------------------------------|----|
| Sarrera .....                                                 | 1  |
| 1) Tarteko ebaluazioaren emaitzen irakurketa, helburuka ..... | 2  |
| 2) 2015eko kudeaketa-planaren balorazioa .....                | 4  |
| 3) 2016ko kudeaketa-plana .....                               | 11 |
| 4) Atal bereziak izendatzeko dokumentua .....                 | 25 |

## Sarrera

Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko V. Plangintzaldian **Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarentzat** diseinatutako 2016. urteko kudeaketa-plana da hau.

Ilido horretatik, V. Plangintzaldiak honako lau helburu nagusi eta hiru zehar-lerro hauek ditu:

| 1. helburua                                                                                                                                                                                  | 2. helburua                                                                           | 3. helburua                                                          | 4. helburua                                                                                                               |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Eusko Jaurlaritzarekiko eta erakunde autonomiadunekiko harremanetan, bereziki zuzeneko arretako eta jendaurreko zerbitzuetan (zerbitzu hizkuntza) | Euskara lan hizkuntza izateko aurrerapausoak egitea, euskaraz gero eta gehiago sortuz | Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea | Erakunde-ordezkarien lidergoa indartzea euskararen normalizazio prozesua erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeko |
| Zehar-lerroak                                                                                                                                                                                |                                                                                       |                                                                      |                                                                                                                           |
| Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak<br>Hizkuntza-gaitasuna handitzea<br>Euskararekiko atxikimendua areagotzea                                                                         |                                                                                       |                                                                      |                                                                                                                           |

2016. urtean zehar abiatuko dugun lanketan, lehenengo helburua finkatzeari eta bigarren helburu sustatzeari ekingo diogu nagusiki. Hori lortze aldera, eta erabilera-planean onartutako irizpideei jarraiki, planak eragindako langileak identifikatu, eta egingo dituzten ekintza-moten arabera multzokatu ditugu.

Lau interbentzio-mota aurreikusi ditugu:

- Jaurlaritza mailakoak
- Orokorrak, sail mailakoak
- Zuzendaritza/zerbitzu/langile mailakoak
- Sailari atxikitako erakundeak

Eragindako langile horiekin harremanetan jarriko gara, dagozkien helburu eta eginkizunak komunikatzeko.



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

## 1) Tarteko ebaluazioaren emaitzen irakurketa, helburuka

### 1.1) Lehen helburua: zerbitzu Hizkuntza

- Sailaren ustez, zerbitzu hizkuntza bermatzea da sail honek gutxienez bermatu behar duen erronka.
- “Hizkuntza paisaia”, “web-orriak eta sare sozialak”, “publizitatea” eta “tramitazio telematikoa” ataletako datuei erreparatuta, argi dago sailean asko zaintzen diren gaiak direla; beraz, horiek mantendu baino ez dira egin behar, sailaren kulturen finkatuta.
- “Argitalpenak” atalari dagozkion datuak hobeto neurtu beharra atzeman dugu; ziur asko, jasotako datua ez da zuzena, hobe dela uste dugu. Beraz, hori hobeto neurtzeko ekintza jaso dugu kudeaketa-planean. Horregatik proposatu dugu hobekuntza nabarmena datozen urteetarako, adierazle horretan.
- “Herritarrei bidalitako idatziak” datua hobetu nahi dugu, Jaurlaritzako datuarekin bat egite aldera. Hala ere, adierazle horretan, elebitasunaren ehunekoa oso altua da; izan ere, langile askok eredu elebidunak dituzte eta ez dituzte aldatzen nahiz eta jakin hartzailea euskalduna dela. Baliteke herritarren eskarian eragin behar. Bidalketa masiboetan elebitasuna bermatuta dago.
- “Herritarrek bidalitako idatziak” ataleko datua hobetu beharrean gaude, ziur asko ehuneko baxu hori enpresek bideratzen dituzten espediente teknikoengatik izango da, baina irudi korporatiboaren bidez jarrera proaktiboa sustatuta saiatuko gara hobetzen, Jaurlaritzako datuarekin bat egite aldera.
- “Herritarrek euskaraz egin eta ondorengo erantzuna euskaraz” (idatziz) ataleko datuak lortzen zailak dira, ibilbide administratibo mota zehatzari erreparatu behar baitzaio. Baina, ahalegin berezia egingo dugu datu horren bilketa fintzen eta hobetzen, funtsezkotzat jotzen baitugu. Datua hobetu nahi dugu, Jaurlaritzako datuarekin bat egite aldera. Honekin lotuta hainbat ekintza daude lotuta, gai honetan interes handia baitu sailak.
- “Harrera-hizkuntza euskaraz” eta “herritarrek euskaraz egin eta ondorengo erantzuna euskaraz” dagoeneko arreta eta jendaurreko lanpostuetan asko landu den gaia da sail honetan, baina indartzen saiatuko gara, berriro ere irudi korporatiboa baliatuta, joerak positiboak izaten jarrai dezan. Izan ere, sailaren batez bestekoa EJrena baino altuagoa da. Zerbitzua eman behar duen langilea euskalduna izan ezean, lankide euskaldun bati emateko eskatuko dio.

### 1.2) Bigarren helburua: Lan hizkuntza

- Sailaren ustez, batez ere, atal euskaldun eta elebidun izendutako ataletan landu behar da lan hizkuntza, bertan zerbitzu hizkuntza bermatzetik haratago jotzeko.
- “Euskaraz sortzen den dokumentazioaren indizea” adierazlearen datua hobetu nahi dugu, Jaurlaritzako datuarekin bat egite aldera. Terminologian are aurrepauso gehiago emango dira eta horrek eragina izango du hurrengo datuetan. Horretaz gain, zuzenketa zerbitzua are gehiago sustatuko da, baita euskaraz lan egiteko tresnen erabilera sustatu ere.
- “Lan-bileretako euskararen erabilera (ahoz eta idatziz)” adierazlearen datua hobetu nahi dugu, Jaurlaritzako ahozko datuarekin bat egiteko, gutxienez. Idatziz, EJ bezala gabilta, gutxi gorabehera.
- “Prestakuntza” atalean, ikastaro guztiak hartu ziren kontuan, baita euskara planeko berariazko ikastaroak ere. Datu hori oso ona da, sail honetan bi mikroplan baitaude martxan. Horrelako

# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

## 2016ko kudeaketa-plana

ekintzek arrakasta handia izan dute; beraz, jarraituko dugu horrelakoak egiten dagoeneko izendatuta dauden eta izendatzeko fasean diren ataletan. Gainera, sail honetan, Euskara Planeko ikastaroak ez dira kontuan hartzen prestakuntza orokorraren irizpideetan. Hau da, langileek 2 ikastaro arruntez gain, euskara planeko ikastaroak ere egin ditzakete.

- “Aplikazio eta programa informatikoak” adierazlearen datua ona da, aplikazio gehienak ele bietan baitaude erabilgarri, baina horien euskarazko erabilera bultzatu behar da, are datu hobea izan dadin.
- “Barruko hizkuntza paisaia” hobetu nahi dugu, baina askotan aparatu elektronikoak izaten dira oztopo, eta ez da nahikoa izaten behin-behineko oharrak ele bietan jartzea. Hala ere, iragarki-tauletan, agiri ofizialak ele bietan daude.

### 1.3) Hirugarren helburua: Herri administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea

- “Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera (ahoz)” adierazlearen datua hobetu nahi da, EJKoarekin partekatze aldera, udal euskaldunek ekarritako eskari berriarekin lotuta, baita irudi korporatiboarekin ere.
- “Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera (idatziz)” adierazlearen datua hobetu nahi da, udal euskaldunek ekarritako eskari berriarekin lotuta, baita irudi korporatiboarekin ere.

### 1.4) Laugarren helburua: Erakunde-ordezkarien lidergoa indartzea

- “Batzorde kudeatzailean parte hartu duten zuzendarien ehunekoa” adierazlearen datua hobetu nahi da, asmoa da %100 izatea, batzordea parte-hartzailea eta eraginkorra izateko. Gainera, nabarmentzeko modukoa da erakunde-ordezkarien euskara gaitasuna.
- “Ekimenetan parte hartu duten zuzendarien ehunekoa” oso altua da (% 90); izan ere, orain arte deitu izan zaienean edo parte hartzeko eskatu zaienean, erantzun egin dute. Hala ere, portaera eredugarriak areagotu nahi dira.

### 1.5) Erabilera-planarekiko balorazioa

- “Balorazioa” adierazlean, ikusi da planak harrera ona izan duela baina “ez daki/ez du erantzuten” kopurua jaitsi behar dela, komunikazioa hobetuta, sentsibilizazioa indartuta eta elkarlana sustatuta. Hala ere, EJren batez bestekotik gora gaude.

## 2) Bestelakoak

- “Hizkuntza-eskakizuna betetzen duten langileen indizea” adierazlean, EJren batez bestekotik gora gaude 8 puntutan. Hala ere, euskalduntzeko prestakuntzaren bidez hobetu nahi dugu. Gainera, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deialdien inguruko informazioa ematen da.
- “Saileko lanpostuetan ezarritako derrigortasun-daten indizea” adierazlean, EJren batez bestekotik gora gaude 19 puntutan. Hala ere, arian-arian hobetu nahi dugu, saileko langileen gaitasuna bermatzeko.



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

## 2) 2015eko kudeaketa-planaren balorazioa

2015eko kudeaketa-planaren kronograma:

2015

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA |                                                                    |          |                                |              |                 |
|---------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|----------|--------------------------------|--------------|-----------------|
| 1) Jaurlaritza mailako interbentzioak |                                                                    |          |                                |              |                 |
| Arloa                                 | Ekintza                                                            | Helburua | Atala/hartzaileak              | Langile kop. | Noiz            |
| Komunikazioa                          | 1) Elebidun edo euskarazko atala izateak zer dakarren jakinaraztea | 1,2      | Elebidun edo euskarazko atalak | 151          | 2. hiruhilekoan |
| Komunikazioa                          | 2) HOEI jakinarazi                                                 | 1,2,3,4  | Atal guztiak                   | 237          | 3. hiruhilekoan |
| Diagnostiko eta jarraipena            | 3) V. Plangintzako tarteko ebaluazioa                              | 1,2,3,4  | Atal guztiak                   | 237          | 2. hiruhilekoan |

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA                  |                                                  |          |                                               |                 |                                                 |
|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------|----------|-----------------------------------------------|-----------------|-------------------------------------------------|
| 2) Sail mailako interbentzioak                         |                                                  |          |                                               |                 |                                                 |
| Arloa                                                  | Ekintza                                          | Helburua | Atala/hartzaileak                             | Langile kop.    | Noiz                                            |
| A) Euskararen presentzia bermatzea eguneroko jardunean | 1) 5 minutuko ikastaroa                          | 2        | Gutxienez, 1.HE egiaztatuta duten langileak   | 181             | Egunero                                         |
|                                                        | 2) Gogoratu                                      | 2        | Atal guztiak                                  | 237             | Hileko lehen ostiralean                         |
|                                                        | 3) Data edo kanpaina bereziak                    | 2        | Atal guztiak                                  | 237             | Ekitaldi egokirik egonez gero                   |
| B) Euskarazko sorkuntza idatzia sustatzea              | 4) Zuzenketa Zerbitzua                           | 2        | Atal guztiak                                  | 237             | Astelehenero eskaini                            |
|                                                        | 5) Saileko web-orrialdea berrikustea             | 1        | Web-orria elikatzen duten langileak           | 12              | Hilero                                          |
|                                                        | 6) Itzulpen irizpideen berri eman                | 2        | Atal guztiak                                  | 237             | 1. hiruhilekoan                                 |
|                                                        | 7) <a href="#">Euskara hutsezko espedienteak</a> | 2,3      | <a href="#">Atal euskaldun eta elebidunak</a> | 151             | <a href="#">Ekintza hau 2016an gauzatuko da</a> |
| C) Prestakuntza                                        | 8.1) Euskalduntze ikastaroak. Matrikulazioa      | 2        | Horren beharra duten langileak                | Ezin aurreikusi | 2. hiruhilekoan                                 |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2015

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA |                                                                                                                                                                     |     |                                |                 |                 |
|---------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----|--------------------------------|-----------------|-----------------|
|                                       | 8.2) Euskalduntze ikastaroak. Mailaketa-proba                                                                                                                       | 2   | Horren beharra duten langileak | Ezin aurreikusi | 3. hiruhilekoan |
|                                       | 8.3) Euskalduntze ikastaroak. Eskolak hasi, eta jarraipena                                                                                                          | 2   | Horren beharra duten langileak | Ezin aurreikusi | 4. hiruhilekoan |
|                                       | 9) Berariazko prestakuntza                                                                                                                                          | 1,2 | Horren beharra duten langileak | Ezin aurreikusi | Etengabe        |
|                                       | 10.1) Elebi. Lehen lauhilekoaren balorazioa eta hurrengoaren proposamena                                                                                            | 1,2 | Horren beharra duten langileak | Ezin aurreikusi | 1. hiruhilekoan |
|                                       | 10.2) Elebi. Balorazioa                                                                                                                                             | 1,2 | Horren beharra duten langileak | Ezin aurreikusi | 2. hiruhilekoan |
|                                       | 10.3) Elebi. Proposamena                                                                                                                                            | 1,2 | Horren beharra duten langileak | Ezin aurreikusi | 3. hiruhilekoan |
| D) Irudi korporatiboa                 | 11) Atal izendapenak. Baldintzak eta betebeharrak.                                                                                                                  | 1,2 | Atal euskaldun eta elebidunak  | 151             | 1. hiruhilekoan |
|                                       | 12).eus izena aldaketa dela eta, zenbait helbide elektroniko euskaratzea (-trans@)                                                                                  | 1   | Atal guztiak                   | Ezin aurreikusi | 2. hiruhilekoan |
| E) Maila linguistikoa bermatzea       | 13) Langileek hizkuntza-eskakizun berria egiaztatutakoan, baloratuko da lanpostu horri derrigortasun-data ezartzeko aukera. Baita erretiratzear baldin badaude ere. | 1   | Atal guztiak                   | Ezin aurreikusi | Etengabe        |
| F) Kargudunen lidergoa                | 14) Agerraldi publikoetako euskararen erabilera finkatu eta hobetu. Gogorarazi HPSko zirkularra                                                                     | 4   | Goi-kargudunak                 | 10              | 1. hiruhilekoan |
|                                       | 15) Datu bilketa eta hobetzeko proposamena bideratu.                                                                                                                | 4   | Goi-kargudunak                 | 10              | 2. hiruhilekoan |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2015

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA                             |                                                                                             |         |                                                                         |                 |                             |
|-------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------|---------|-------------------------------------------------------------------------|-----------------|-----------------------------|
| G) Kudeaketa-plana                                                | 16) Datu bilketa eta balorazioa                                                             | 4       | Goi-kargudunak                                                          | 10              | 4. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 17) Proposamena landu eta aurkeztu                                                          | 1,2,3,4 | Atal guztiak                                                            | 237             | 1. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 18) Balorazioa eta egokitzapenak                                                            | 1,2,3,4 | Atal guztiak                                                            | 237             | 2. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 19) Baloratu eta 2016rako proposamena landu                                                 | 1,2,3,4 | Atal guztiak                                                            | 237             | 4. hiruhilekoan             |
| H) V. Plangintzako tarteko ebaluazioa                             | 20) Datu bilketa eta datuen berri eman                                                      | 1,2,3,4 | Atal guztiak                                                            | 237             | 2. hiruhilekoan             |
| I) Itzulpen Tutorizatua                                           | 21) Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad           | 2       | Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza            | 4               | 1. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 22) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatuko duen Dekretua | 2       | Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza                   | Ezin aurreikusi | 1. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 23) Hegaztien Zuzentzaraua                                                                  | 2       | Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza            | Ezin aurreikusi | 2. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 24) Tren Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legea                                    | 2       | Garraio Sailburuordetza                                                 | Ezin aurreikusi | Dagoeneko ez da beharrezkoa |
|                                                                   | 25) Hilero arlo juridikoko buruarekin sailak bideratuta dituen lege testuak aztertze        | 2       | Zerbitzu Zuzendaritzako aholkularitza juridikoa eta ataleko teknikariak | 3               | Hilero                      |
| J) Euskarazko baliabide informatikoak zabaldu enpresa publikoetan | 26) Elet, Idaba eta Dudanet zabaldu                                                         | 2       | Sailari atxikitako enpresa publikoak                                    | Ezin aurreikusi | 2. hiruhilekoan             |
| K) Udal euskaldunak                                               | 27) Berri eman                                                                              | 3       | Atal guztiak                                                            | 237             | 1. hiruhilekoan             |
|                                                                   | 28) Konpromisoak zuzendariekin                                                              | 3       | Atal guztiak                                                            | 6               | 2. hiruhilekoan             |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2015

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA |                                                                                                                    |   |                                                            |     |                 |
|---------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|------------------------------------------------------------|-----|-----------------|
|                                       | 29) Datu-bilketa eta jarraipena                                                                                    | 3 | Atal guztiak                                               | 237 | 4. hiruhilekoan |
| L) Gobernantza                        | 30) Sailari atxikitako erakunde publikoak lantaldean sartzea antolatu, sailean kultura parte-hartzailea zabaltzeko | 4 | Zuzenbide pribatuko ente publikoak eta sozietate publikoak | 5   | 4. hiruhilekoan |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2015

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA                                           |                                                                                      |          |                              |                 |                                        |
|---------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|----------|------------------------------|-----------------|----------------------------------------|
| 3) Zuzendaritza/zerbitzu/atal/langile mailako interbentzioak                    |                                                                                      |          |                              |                 |                                        |
| Zuzendaritza                                                                    | Ekintza                                                                              | Helburua | Atala/hartzaileak            | Langile kop.    | Noiz                                   |
| Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (euskarazko atala) | 1) "Zergatik ez?" saioa                                                              | 2        | Lakuako langileak            | 14              | 1. hiruhilekoan                        |
|                                                                                 | 2) Mikroplana amaitu eta horren berri eman                                           | 1,2,3    | Zuzendaritza osoa            | 22              | 1. hiruhilekoan                        |
|                                                                                 | 3) Erregistroko datuen bidezko jarraipena                                            | 1,2,3    | Zuzendaritza osoa            | 22              | hiru hilean behin                      |
|                                                                                 | 4) Langile berriei mikroplanaren berri ematea (harrera prokolo berezia)              | 1,2,3    | Langile berririk izanez gero | Ezin aurreikusi | Etengabe                               |
|                                                                                 | 5) Ebaluazio landua, HPSrekin batera                                                 | 1,2,3,4  | Zuzendaritza osoa            | 22              | 2. hiruhilekoan                        |
| Hainbat atal elebidun                                                           | 6) <i>Administrazio eta Lurralde Plangintzaren Sailburuordetzako ad hoc ekintzak</i> | 1,2,3    | Langile bakarra, idazkaria   | 1               | <i>Ekintza hau 2016an gauzatuko da</i> |
|                                                                                 | 7) Estatistika ataleko <i>ad hoc</i> ekintzak                                        | 2        | Atal osoa                    | 2               | 2. hiruhilekoan                        |
|                                                                                 | 8) Berdintasun ataleko <i>ad hoc</i> ekintzak                                        | 2        | Langile bakarra              | 1               | 2. hiruhilekoan                        |
|                                                                                 | 9) Garraio Plangintzaren Zuzendaritzako <i>ad hoc</i> ekintzak                       | 1,2,3    | Langile bakarra, idazkaria   | 1               | 2. hiruhilekoan                        |
|                                                                                 | 10) Zerbitzu Zuzendaritzako <i>ad hoc</i> ekintzak                                   | 1,2,3    | Langile bakarra, idazkaria   | 1               | 4. hiruhilekoan                        |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2015

|                                                                        |                                                                      |         |                                   |                 |                                 |
|------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|---------|-----------------------------------|-----------------|---------------------------------|
| Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza (atal elebiduna) | 11) Mikroplana aurkeztu, elkarrizketak egin eta proposamena aurkeztu | 1,2,3,4 | Zuzendaritza osoa                 | 22              | 1. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 12) Mikroplanaren ekintzak abian jarri                               | 1,2,3,4 | Zuzendaritza osoa                 | 22              | 2. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 13) Mikroplanaren jarraipena                                         | 1,2,3,4 | Zuzendaritza osoa                 | 22              | 4. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 14) HPSren Hirigintza zuzenbidearen hiztegiaren parte hartu          | 1,2,3,4 | HPSrekin adostuko da              | Ezin aurreikusi | 4. hiruhilekoan                 |
| Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza (atal elebiduna)              | 15) Mintzagrama                                                      | 2       | Zuzendaritza osoa                 | 75              | Ekintza hau 2016an gauzatuko da |
|                                                                        | 16) Atal elebiduna izatearen baldintza eta betebeharrak              | 1,2     | Zuzendaritza osoa                 | 75              | Ekintza hau 2016an gauzatuko da |
| Garraio Azpiegituren Zuzendaritza                                      | 17) Txostenak portu baimenetan                                       | 2       | Aktak egiten dituztenak, PLZetan. | Ezin aurreikusi | 2. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 18) Protokoloa udalekin                                              | 3       | Zuzendaritza osoa                 | 53              | 2. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 19) 1. mintzagrama: Zerbitzua                                        | 2       | Lakuako langileak                 | 19              | Ekintza hau 2016an gauzatuko da |
|                                                                        | 20) 2. mintzagrama: Gipuzkoa                                         | 2       | Gipuzkoa                          | 18              | 2. hiruhilekoan                 |
| Garraio Plangintzaren Zuzendaritza                                     | 21) Kontrasterako Mintzagrama                                        | 2       | Zuzendaritza osoa                 | 15              | 2. hiruhilekoan                 |
| Gipuzkoako Portuen Zerbitzua (atal euskalduna)                         | 22) Mintzagrama                                                      | 2       | Atal osoa                         | 16              | 2. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 23) Azterketa komunikatiboak                                         | 1,2,3   | Atal osoa                         | 16              | 2. hiruhilekoan                 |
|                                                                        | 24) Harrera protokoloa                                               | 1       | Atal osoa                         | 16              | Ekintza hau 2016an gauzatuko da |
|                                                                        | 25) Irizpideak ezarri, atal euskalduna baita                         | 1,2,3,4 | Atal osoa                         | 16              | 3. hiruhilekoan                 |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

## 2015eko kudeaketa-planaren balorazioa:

V. Plangintzako tarteko ebaluazioan jasotakoaz gain, 2015. urteari dagokionez, honako hau adieraztea dago:

### Alderdi positiboak:

- 2015erako aurreikusita zeuden ekintza gehienak burutu dira.
- Sailean, bi mikroplan daude martxan: Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan eta Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzan.
- Mikroplan horietan, guztira, 46 pertsonak hartzen dute parte
- Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzakoari amaiera eman zaio eta esperientzia hori jasotzeko txosten bat egin da. Noski, proiektu horrek jarraipena izango du.
- Horretaz gain, mikroplan horren barruan, sailburuak EAELABan, gutxienez, espediente bat euskara hutsean lantzen du osoko bilkura bakoitzean. Hori praktika ontzat jotzen dugu.
- Euskalduntzeko 2014/2015 ikastaroan, 17 pertsonak hartu dute parte
- 4 langilek egiaztatu dute hizkuntza-eskakizun berriren bat.
- Euskaraz lan egiteko ikastaro berezietan, 56 matrikula izan dira.
- Bi testu euskaratu dira itzulpen tutorizatuaren bidez: basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentaraua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatuko duen Dekretua.
- Terminologian aurrerapausoak, IZOko terminologoein lankidetzan.
- 2015ean, igarotako bi derrigortasun-data berri bideratu dira.
- 5 minutuko ikastaroa zabaldu
- «Gogoratu» 5 mezu zabaldu dira
- Proiektzio publikoa duen edozertan bultzatzeko euskararen presentzia bermatzeko zirkularra zabaldu zen sailean.
- Gobernantza bultzatuta, 2015ean, sailari atxikitako erakunde publikoak saileko euskara planaren lantaldean sartu dira.
- 2015ean, udal euskaldunek euskara hutsezko komunikazioak bideratu zituzten Jaurlaritzarekin.
- Urte amaieran, Euskararen Txantxangorriaren kanpaina jarri du abian HPSk.
- Saileko Euskara Atalak Aurrerabide proiektuan hartu du parte.
- Saileko kargudunen konpromisoa, inplikazioa eta lidergoa. Beraiek sustatu dute plana hasieratik eta bilera askotan izan dira.
- Saileko langileek aldeko jarrera eta parte-hartze nabarmena izan dute.
- Sail guztiok aldi berean aritzea prozesuan (kronograma bateratua), HPSren gidaritzapean
- IVAPen urteroko prestakuntza-plana.
- IZO zerbitzuarekiko lankidetzatza
- Euskara Planeko ikastaroak ez dira kontuan hartzen prestakuntza orokorraren irizpideetan. Hau da, langileek 2 ikastaro arruntez gain, euskara planeko ikastaroak ere egin ditzakete.



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

## 3) 2016ko kudeaketa-plana

### 2016ko kudeaketa-plana guztiz onesteko ibilbidea:

- Euskara Atalak proposamen bat landu eta Zuzendaritza Taldeari aurkeztu
- Egokitzapenak egin
- Saileko lantaldekoei aurkeztu eta haien ekarpenak jaso eta testuan txertatu
- Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak saileko langile guztiei bidali, ekarpenak egin ditzaten
- Saileko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Kudeatzailean behin betiko onartu

### Interbentzioak bideratzeko pausoak

Honako hauek dira interbentzioak abiatzeko pauso nagusiak:

- Saileko/zuzendaritzako arduradun/zuzendariak eragindako langileekin jarriko dira harremanetan, hiru mezu nagusi transmititzeko: a) Kudeaketa-plana abian jarriko dela, b) langileek halako ekintzetan parte hartuko dutela, eta c) HNTa/euskara-teknikaria haiekin harremanetan jarriko dela ekintza martxan jartzeko.
- Hainbat ekintzaren aurkezpenetan, Saileko/zuzendaritzako arduradun/zuzendariak eta ataleko zuzendariak hartuko dute parte.
- Txosten honetan dago sail bakoitzeko HNT/euskara-teknikariak bere ardurapeko atalean urtarritetik abendura martxan jarriko duen Kudeaketa-plana. Plan horretan, hilabetez hilabete, zein langilerekin zer ekintza egingo den jasotzen da, eta, aldaketak egin badaitezke ere, horixe izango da gida edo orientazio-fitxa.
- HNTen/euskara-teknikarien ardura izango da ekintzei buruzko xehetasunak azaltzea, ekintzak martxan jartzea eta haien jarraipena egitea.



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2016ko kudeaketa-planaren kronograma:

2016

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

### 1) Jaurlaritza mailako interbentzioak

| Arloa                      | Neurria                                                            | Helburua | Atala/hartzaileak              | Langile kop. | Ardura                   | Noiz            | Betetze maila |
|----------------------------|--------------------------------------------------------------------|----------|--------------------------------|--------------|--------------------------|-----------------|---------------|
| Komunikazioa               | 1) Elebidun edo euskarazko atala izateak zer dakarren jakinaraztea | 1,2      | Elebidun edo euskarazko atalak | 163          | Sailburuorde /Arl Zuzend | 1. hiruhilekoan |               |
| Komunikazioa               | 2) HOEI jakinarazi                                                 | 1,2,3,4  | Atal guztiak                   | 236          | Sailburuorde /Arl Zuzend | 1. hiruhilekoan |               |
| Diagnostiko eta jarraipena | 3) 2016ko kudeaketa planaren ebaluazioa                            | 1,2,3,4  | Atal guztiak                   | 236          | Sailburuorde /HNT        | 4. hiruhilekoan |               |

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

### 2) Sail mailako interbentzioak

#### 1. helburua: zerbitzu hizkuntza

| Arloa                                             | Neurria                                                          | Atala/hartzaileak | Langile kop. | Ardura         | Noiz            | Betetze maila |
|---------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------|-------------------|--------------|----------------|-----------------|---------------|
| A) Errotulazio aldakor guztia euskaraz ere egotea | 1) Gune guztiak kontrolatu ahal izateko erak finkatu             | Atal guztiak      | 236          | Arl idazk      | 1. hiruhilekoan |               |
|                                                   | 2) Hilean behin ikuskapena egin                                  | Atal guztiak      | 236          | Arl idazk      | Hilean behin    |               |
| B) Argitalpen guztiak gutxienez euskaraz egotea   | 1) Erakundeko argitalpenak bideratzeko arduraduna identifikatzea | Atal guztiak      | 1            | HNT            | 1. hiruhilekoan |               |
|                                                   | 2) Arduradunari datuak hobeto jasotzeko proposamena egin         | Atal guztiak      | 1            | HNT            | 1. hiruhilekoan |               |
|                                                   | 3) Irizpidea finkatzea eta arduradunak jakinaraztea              | Atal guztiak      | 1            | Sailburuorde a | 1. hiruhilekoan |               |
|                                                   | 4) Argitalpen erregistroan hizkuntza jasotzea                    | Atal guztiak      | 1            | Arl teknikaria | Etengabe        |               |



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2016

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA                                             |                                                                         |                      |      |                 |                 |  |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------|----------------------|------|-----------------|-----------------|--|
| C) Web-orrian argitaratutako guztia bi hizkuntzatan egotea                        | 5) Urtean behin argitaratutakoaren datuak jasotzea eta HNTRI helaraztea | Atal guztiak         | 1    | Arl teknikaria  | 4. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 1) Web-orria editatzen dituzten pertsonak identifikatu                  | Atal guztiak         | ± 12 | Arl idazk       | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 2) Argitaratzeko prozedura aztertu                                      | Atal guztiak         | ± 12 | HNT             | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 3) Irizpidea betetzeko neurriak adostu eta arduradunak jakinarazi       | Atal guztiak         | ± 12 | Arl zuzend      | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 4) Jarraipena urtean behin                                              | Atal guztiak         | ± 12 | Kom. Arduraduna | 4. hiruhilekoan |  |
| D) Sare sozialetan argitaratutako ekintza komunikatibo bakoitza euskaraz abiatzea | 1) Sare sozialak editatzen dituzten pertsonak identifikatu              | Atal guztiak         | ± 12 | Arl idazk       | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 2) Argitaratzeko prozedura aztertu                                      | Atal guztiak         | ± 12 | HNT             | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 3) Irizpidea betetzeko neurriak adostu eta arduradunak jakinarazi       | Atal guztiak         | ± 12 | Arl zuzend      | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 4) Jarraipena urtean behin                                              | Atal guztiak         | ± 12 | Kom. Arduraduna | 4. hiruhilekoan |  |
| E) Tramitazio telematikoez arduratzen diren pertsonak identifikatzea              | 1) Tramitazio telematikoez arduratzen diren pertsonak identifikatzea    | Atal guztiak         | ± 12 | Arl idazk       | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 2) Irizpidea dagokion arduradunak jakinaraztea                          | Atal guztiak         | ± 12 | Arl zuzend      | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 3) Egindako tramitazioen jarraipena egitea                              | Atal guztiak         | ± 12 | Arl tekn        | 4. hiruhilekoan |  |
| F) Herritarrei bidalitako idatzi guztiak gutxienez euskaraz egotea                | 1) Idatziak bidaltzen dituzten pertsonak identifikatzea                 | Atal guztiak         | 236  | Arl zuzend      | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 2) Arduradunak irizpideak jakinarazi                                    | Atal guztiak         | 236  | Arl zuzend      | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 3) Erregistroko arduradunari datuak jasotzeko irizpideak jakinarazi     | Erregistro zerbitzua | 2    | Zerb zuzend     | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                   | 4) Seihelean behin herritarrei bidalitako                               | Erregistro zerbitzua | 2    | Erregistroko    | Seihelean behin |  |

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila



# Eusko Jaurlaritza: erabilera-planak

2016ko kudeaketa-plana

2016

| INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA                                               |                                                               |                               |     |              |                 |  |
|-------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------|-------------------------------|-----|--------------|-----------------|--|
|                                                                                     | idatzien datuak jaso                                          |                               |     | ak           |                 |  |
| G) Herritarrek bidalitako idatziak                                                  | 1) Irudi korporatiboa baliatu, herritarren eskaria handitzeko | Atal elebidun edo euskaldunak | 163 | Arl zuzend   | 1. hiruhilekoan |  |
| H) Jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia bermatu                           | 1) Komunikazio arduradunei irizpidea jakinarazi               | Goi-kargudunak                | 10  | Sailburuorde | 1. hiruhilekoan |  |
|                                                                                     | 2) Ekitaldien erregistroa egin                                | Goi-kargudunak                | 10  | Kom. ard     | Etengabe        |  |
|                                                                                     | 3) Jarraipena egin ekitaldietan erabilitako euskara kopuruari | Goi-kargudunak                | 10  | Kom. ard     | Etengabe        |  |
